



BIKINTASUNERANTZ (2016-2017)

IRAKASLEEN FORMAKUNTZA PROIEKTUA

ETORKIZUNA ERAIKIZ; ANIZTASUNEAN HEZKUNTZA BERRIZTATZEN

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure Ikastetxeak Hezkuntza Sailak proposaturiko ildotik betetzen du bere Formakuntza / Berrikuntza Proiektua.

Hau dela eta, Hobekuntza Planarekin eta Ikastetxearen urteko planarekin uztartu nahi dugu datorren ikasturtean garatzeko Berriztatze Proiektu hau: aurkezten dugun Plan hau, Ebaluazio Diagnostikotik ateratako emaitzen hausnarketaren ondorioz eta Ikastetxeko ikasleen bukaerakopro filahobetzeko helburuaz eratu dugu irakasleok, Berritzeguneko aholkularitzaz eta OMRaren oniritziaz.

Aurtengo planifikazioan, orain arte egindakoatik abiatuz, guguztion gaitasunak sakondu eta zabaltzen jarraitu nahi dugu eta pauso bat haratago eman nahi dugu Irrati Proiektuan eta Sare-Hezkuntza Gelan Proiektuetan murgilduz .

Gure Formakuntzanj orratuko ditugun 3 ardatzak haueki zango dira:

	IKT	HNP	IKKI
	<p>3.Heldutasun maila barnean lanean jarraituz: Sare Hezkuntza Proiektuarekin hasi</p> 	<p>AHO HIZKUNTZA GAITASUNA LANTZEN: Irratsaio Proiektuarekin eta Zuberoa Tailerrarekin hasi</p> <p>#euskara</p>	<p>Aniztasunari erantzun nahiean, Ikasketa Kooperatiboan lanean jarraituz: A ETA B EREMUAz gain C EREMUAn sakontzea. Bidasoatik Mundura Proiektuarekin jarraitu</p> 
SAIOAK	5 saio (10 ordu)	5 saio (10 ordu)	5 saio (10 ordu)
EMALEA	IKT Arduraduna Alex (Berritzegunea) Kanpoko emaleren bat	IRALEKO Irakaslea	Gemma Legorburu Marivi Fernandez (Berritz.)
NOIZ	1go. Hiruhilean	2.Hiruhilean	1go. Hiruhilean eta 2.Hiruhilean



HELBURU ESTRATEGIKOAK

Formakuntza Proiektu honetan, gure eguneroko jardunarako prestakuntza hobeko bat lortzearekin batera, gure ikaslego osoari kalitatezko hezkuntza eskaintzeko estrategia praktikoak lantzen jarraitu nahi dugu eta horien inguruko hausnarketa egiten jarraitu nahi dugu datorren ikasturtean ere.

Hezkuntza orokorraren barnean lan egin nahi dugu 2020ra begira, baina, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua banakako hezkuntza premia ezberdinetara egokituz beti ere, eta ikuspegi ulerkorra eta inklusibotik “aniztasunaren testuinguruan” ikasi daitezkeen giza-balore garrantzitsuenak sustatu.

Horregatik, gelako lanean hobekuntza lortzeko zeregin honetan, arreta berezia eskaini nahi diogu eguneroko jardueran hain garrantzitsuak diren motibazioari, emozioei eta harreman afektiboari.

Beraz, hasita gauden hobekuntzarako bide honetan, aurrera egin nahi dugu datorren ikasturtean Hezkuntza Sailak eskaintzen duen BIKAINTRASUNERANTZ Programaren barnean.

HELBURU OROKORRAK

Laburki esanda, hauek lirateke gure helburu orokorrak datorren ikasturtean garatu nahi dugun Proiektu honekin:

- Ikuspegi integral eta eraldatzaile batetik eta eredu berriztatzaileak garatuz, hezkuntza sistemaren kalitatea hobetzen laguntzea bizikidetzara hobetzen dugun heinean.
- Irakaslearen trebetasunak hobetzea gatazkei erantzuteko eta hezkuntza aniztasunari moldatzeko proaktibitatea bultzatuz.
- Egitura kooperatiboak bultzatzea maila guztietan eta talde guztietan, elkarrekiko errespetuan oinarrituz eta jazarpena bezelako arriskuak ekiditzeko ikastetxean
- Aniztasunaren abordaketa era eraikitzailean izan dadin beharrezkoak ditugun tresnez jabetu.
- IKT aplikazioen inguruan sakonketa lana egin.
- IKT bitartez ikaslearen Gaitasunak garatzea.
- Gelaren kudeaketa hobetzea. Aho Hizkuntzaren gaitasuna hobetzea.